

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**Diputatuen Kontseiluaren 690/2016 Erabakia, urriaren 25ekoa, Ibon Oñate Zamalloa jauna izendatzen duena Foru Aldundiaren ordezkari Datuak Babesteko Euskal Agentziaren Aholku Batzordean, 2016ko abuztuaren 1etik eta 2018ko urtarrilaren 31rainoko epean, bat etorritik hiru lurralde historikoek onartutako erabakiekin**

Diputatuen Kontseiluaren ardura da Arabako Foru Aldundiak erakunde eta instituzio publiko nahiz pribatuetan dituen ordezkariak izendatzea, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzkoak, bere 8. artikuluan, 9. eta 10. idatz zatietan aurreikusikoaren arabera.

Otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiak eta datuak babesteko euskal bulegoa sortzearenak, 16. artikuluan xedatutakoarekin eta hiru lurralde historikoek bere garaian hartutako erabakiekin bat etorritik, Arabako Foru Aldundiak lurralde historikoen ordezkaria izendatu behar du bulegoko batzorde betearazterako, 2016ko abuztuaren 1etik 2018ko urtarrilaren 31rako aldirako.

Horregatik, Diputatu nagusiaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

#### ERABAKIA

Lehenengoa. Ibon Oñate Zamalloa izendatzea lurralde historikoen ordezkari, bera izango delarik titularra, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Aholku Batzorderako (foru administrazioak partaidetza duen erakundearen erregistroko 250 zenbakia), hiru lurralde historikoetan hartutako erabakien arabera eta 2016ko abuztuaren 1etik 2018ko urtarrilaren 31rako aldirako.

Bigarrena. Erabaki honek onartzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratuko den eguna edozein dela ere.

Gasteiz, 2016ko urriaren 25a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendaria*

**NEKANE ZEBERIO GANZARAIN**